

WOOD. T. (2017)

*Hablar, escuchar, debatir y argumentar. Madril: Narcea.*

Lehenik eta behin esan dezagun Tony Wood dugula liburu honen egilea. Kontrazalean berari buruz ohartarazten zaigunez, eskarmentu handiko hezitzaile ingelesa da eta, besteak beste, Bedfordshireko Unibertsitateko ohorezko ikertzaile seniorra eta *English-Speaking Union* (ESU) delako erakundeko kidea ere bada. ESU ongintza-erakundea da eta, bere webgunean ikusi ahal izan dugu moduan, hiru hezkuntza-helburu nagusi ditu: ikasleak komunikatzaile seguruak, pentsatzaile kritikoak eta herritar ahaldunduak izaten laguntzea. Arestikoak kontuan harturik, erraz ohar gaitzke ingelestetik gaztelaniara itzulitako lan baten gainean dihardugula lerro hauetan.

Narcea argitaletxe madrildarrak *Herramientas* izeneko bilduman argitaratu eman berri du liburua. Bilduma horretan argitaratzen diren gainerako lanak bezalaxe, proposamen *praktikoa* izan nahi du honako honek, eta hezkuntza sisteman irakasle ari denari lanabes eta baliabide zehatzak eskaintzea du xede. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako irakasleei begirako liburua da, eta izenburu nagusiak islatzen duen moduan, etapa horretako ikasleen ahozko komunikazio trebetasuna hobetzeko lanketaren inguruan ardazten da.

Liburuaren egituraz den bezainbatean, honako atal hauek aurkituko ditu irakurleak: Londreseko eskolen ordezkari Tim Brighousek egindako hitzurre laburra, egileak idatzitako sarrera laburra, liburuaren funtsa osatzen duten lau atalak eta proposamena osatzera datozen eranskinak. Oraintsu aipagai genituen lau atalak, egileak berak dioskunez, zailtasun mailaren arabera daude sekuentziatuak: I, II, III eta IV; hots, liburuan aurrera egin ahala, gero eta jarduera konplexuagoak proposatzen dira Lehen Hezkuntzako ikasleak treba daitezen ahozko komunikazioan.

Jarduera guztiak XXI. mendeko bizimodu mendebaldarrak eskatzen dituen oinarrizko gaitasunen markoan kokaturik daude. Alde horretatik, diziplinartekotasuna bilatzen dute ariketek, eta Lehen Hezkuntzako curriculumaren edozein arlotan txertatzeko modukoak izatea dute xede. Esan gabe doa, beraz, ahozko komunikazioan trebatzea egunerokoari dagokion heinean, bizitza errealerako kontuak proposatzen direla, betiere ikaslearengan zentratutako ikaskuntza aktiboak sustatzen dituen metodologia gogoan.

Lau atal nagusiek egitura erregularra dute, eta horietan guztietan honako alderdi hauek azaltzen dira modu argian: jarduera bakoitzaren ikaskuntzaren helburuak, jarduerak prestatzeko eta antolatzeko prozesua, jarduerak gauzatzeko gida xehea eta horiek osatzeko iradokizun gehiago. Liburuko ariketak era sekuentziatuan egitea lehenesten du egileak; nolahi ere den, hezkuntza-errealitate konplexuaren eta ñabarraren jakitun, jarduerak solte ere egin daitezke, irakaslearen nahiz ikasleen beharren arabera. Bestela adierazteko, menu zabala eskaintzen duen karta iradokitzaila aurkezten zaigu (49 jarduera dira orotara); hezkuntzako profesionalaren esku gelditzen da, hortaz, nolako hautaketa egin bere gelarako.

Eranskinei dagokienez, berriz, hamabi dokumentu osagarri topatuko ditu balizko erabiltzaileak. Horiei erreparaturik, aise konturako da eranskin gehienak ozenki irakurtzeko poemak eta eztabaidak bideratzeko fitxak eta gidak direla; eranskin poetikoak eta erretorikoak, alegia. Zilegi bekigu, hartara, gogora ekartzea liburuan ageri ez den datu jakingarri bat: Erretorikari buruzko lehen tratatua idatzi zuen lehen egile europarra izan zen, hain zuzen, Poetikari buruzko lehen tratatua idatzi zuena (Aristoteles). Horrenbestez, ahozko komunikazioan trebatzeko bidean den ikasleak erretorika eta poetika erabili beharko ditu, bai eta —esan gabe doa— irakasleak ere.

Laburbilduz, Ingalaterrako eskoletan gertatzen omen dena Euskal Herrian ere ez gertatzeko lanabes egokia izan daiteke Wooden liburua: eskolako lehenbiziko urteen ondotik, hitzaurregilearen esanetan, gutxi entzuten eta hitz egiten baita ikasgelan. Amai dezagun, bada, adieraziz proposamen interesgarria iruditzen zaigula Lehen Hezkuntzako irakasleentzat, gure eskola-kulturak ahozko komunikazioa behar bezala sustatuko badu.

*Edu Zelaieta Anta*